

EUSKAL-ERRIA


REVISTA VASCONGADA

T.º LXV SAN SEBASTIÁN 15 DE SEPTIEMBRE DE 1911 N.º 1040



JOSE VICENTE ECHEGARAY JAUNA

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY



MOKLANS-GO URBIDEA

Tiñaku edo Pepe Botellas, edo zalako ura, España-ko errege jartzera, eta egin ziran Donostiko erria-ren jabe.

Prantze-zen mendian zeuden donostiarak, 1813-ko Agorrillaren 31^{-an} ingeles-ak brechatik sartu, erri guztia kiskaldu eta nagusitu ziran arte.

Al zuten bezela itzul egin zuten donostiarak, eta Uztailaren 8^{-an} bildurik Zubieta-ko Aizpurua-ren echian, Donosti-ko erria berriro alchatzeko asmua artu zuten.

Eta ori da guzia. Ortik aurrerakoik ez galdetu alperrik da ta.

Geroztikakoak bai, geroztikakoak ez dituzte gordeko; ez da arri koskorrik bere kondaira punta ez duenik, eta pozik eta pozik


Donostiar askoentzako gure erriko kondaira jua dan gizaldian asten da.

Aurreroko gizaldietatik ez dute esagutzen berririk batere.

Jose-mari-tarrentzat kondairak asiera au du: Donostia zegon murre beltz, sendo, gogor, bikain batzubenekin lotuba. Frantziatik etorri ziran beren Josepe




GAZTELUKO ITURRIA



DONOSTIA GAZTELUTIK BEGIRATUTA


azaltzen dizkigute. Ala esagutzen degu anaiarteko donostiarren biziera. Badirudi, erria ondatu zaneko doakabe izugarriak, elkartu, batu zitubela bere seme guztiak eta ordutik ikusten dira ama baten semiak bezela.



KAYEKO ATIA

¡Non ote da orain orduko donostiartasuna!

Eta donostiartasuna nola ezin litekian, alaitasun, pozkide eta atsegintasunik gabe; laster ziran gure erriyan jai-aldi eta jostaketa gain gañekoak. Eginkizun ayetan lenengoetako bat José Vicente Echegaray



SAN MARTIN ALDERAKO BIDEA


zan: berrogei urtian (1813-1853) bera izandu zan neurtzlari, molda-erak biar ziranak idatzitzeko.

Echegaray-k jarri zituen neurtitzak (donostiar guziak gero buruz

zekizkitenak): plaza berriya aurkestu zanian, erria berritzen azi ziranian, erri-ko echia-rentzat lenengo arriya ipiñi zanian, eta gañerako gertaera gogoangarrietan.

Zala eliza-rako Jesus-en jayotza jaitu bear zanian; zala kalera-ko iñauterie-tako jostaketak antolatzeakoan, Echegaray izango zan neurtizlari biarrekoa.

Donostia erre ezkero 1817-ko iñauterietan egin zan lenengo dantza festa edo konpartza *Arzaigokia*, eta orduan ez bakarrik jarri zituben biar ziran neurtitzak, baizik bera atera zan festara, Aita Melchor-en irudigilletzat.



KONPARTZA

Geroztik egin ziran konpartzetan ere, bera izan zan neurtizlari, danten gogokoa.

Beriak dira, oraiñ ere zerbait donostiar festik danian, aitatzen diran neurtitz abek:

Festarik bar bada
 bego Donostiya;
 betikoa du fama
 ondo mereziya:
 beztetan ez bezela
 emen gazteriya
 amaren sabeletik
 dator ikasiya.